

Nafarroa garaia: Basaburuko Harana: Arrarasko hizkera

LEIRE ZABALZA ALEMAN

SARRERA:

Aurrean duzun lan hau, Nafarroako Basaburua haraneko Arraraskoa den Felisa Goizuetaren hizkeran dago oinarriturik; dena den zintan bai Felisak eta bai bere ahizpa Mariak hitzegiten dute; azken hau, Felisa baino zaharxeagoa da.

Felisa Goizueta 70 urteko emakume alarguna da eta orain dela 30 urte bizi da Iruñean. Aita Imotz haraneko Oskozkoa zuen eta ama berriz, Arrarats berekoa.

Esan behar da nik Felisa ezaguna dudala, auzokoa, hortaz horrek grabazioa giro franko lasaiean egiteko aukera eman dit.

Bestalde aipatu behar dut, gatzeleraz hitzegiteko joera oso handia dutela hiru ahizpek; Iruñean bizi dira hiruak, eta hori grabazioan batzuetan nabaritzen da.

Beren hizkeraren transkripzioari buruz zenbait gauza aipatu nahi nituzke:

Felisak ahoskatu duen bezala transkribitu dut; batzuetan hitz ulergaitzak edo hitzen arteko hibridoak ahoskatu dituenek, bere horretan idatzi ditut.

Hortz postizoak dituela uste dut (ez nago ziur), beraz horrek fonetikoki ondorioak bazituela uste dut, batez ere hitz katean batzuetan txistukari afrikatuak agertzea eta beste batzuetan berriz, ez.

Bokalismoan, Basaburukoak diren zenbait ezaugarri direla eta, batez ere u>o eta i>e, batzuetan ez nituen ongi antzematen, eta bi aldakiak idatzi ditut.

<j> grafema erabili dut [x] ebakera adierazteko, eta <y> grafema berriz [j] ebakera adierazteko. Puntu honetan aipatu behar dut, gero ikusiko den bezala, asko harritu nauela bai [x] eta bai [j] egitea, Arraraskoek [j] besterik ez zutela egiten uste bainuen. Behar bada nire eragina izan ote daiteken pentsatu dut, nik [x] ahoskatzen baitut.

Bukatzeko esan behar dut lan honen helburua, aukeratutako hizkera honen eta transkripzioan agertzen diren arau eta ezaugarriak zehaztea dela.

TRANSKRIPZIOA

(...) *Laarteko bordan. Baserrii zen tan bizi giñen ta gio, gio pues ne etor nizen onia pues ama...oitamar urtetan, oitamar urtetan, gio (e)ondu nitzen en la avenida Zaragoza eondu nizin beatzi urtez neskame, ta gio andek beatzi urten, gio ezkondu nizin, iru urten burun gizona il zitzion azidentin ta neskatoak zittun emezortzi illaate ta gio pues ayuntamentun tor zizien zea e, nola esaten da oiri...nola esa...enaiz akordatzen oain....or bizi da...e...tanatorioan ondoan bizi (d)ata tor zien ore zeara plazak pazela (g) Joan esan tzién ta illaateaten barneko yoan bear nun lania...ta zea iraazten zuten ordun,... guardii zen, guardi munizipala ta ordun ze iraazten zuten, zazpi mille pezta o eztaí ze iraazten zuten, ta geo geldittu zitzien... mil seiszientas geldittu zitzien, oikin ze itten nun, diusez ta geo plazak pazirela ayuntamentun ta zeatzeko, presentatzeko esan tzién zeak ona etor zenak...(bein?) ta presentatu nitzin ta gio pues ala... illaaten burneko lanian asi nitzen tan oitabi urtes/iz eondu nitzen ayuntamentun.*

–Ta noiz jubilatatu zihñen ba?

–Jubilatu nitzen...itten ttu sei urte.

–A, ainteste battu?

–Bai, bai, junioan.

–Nik uste nun guain dela bi urte o...

–Ez, ez, ez. Sei urte betetzen ttut junioa(n)... ia... bai, bai ta pues ze inbiazu ba, ta ordue allatuiskios sesentaizinko añotan... o iruetan oitabost urtetan jubilatatu biaziñun ta jubilatatu ta tasta, biño....aspertugeinean.....zuk takizu ze lanak izaten tziin

–Ze lan izaten zihñuzten?

–O... garbittu, etxi...ta urte guzitan igual obran aitzen ziin ta zuk takizu nola paatzen zittuten dena... txu... eskobatzen (¿) zuten ta antxe garbitzel/in, ta antxe aittu giñen oitabi urtes,(g)aixua, o sea ke, ez tao emen emen lan in bearra dao ta eztau... ta asi giñen... eskolan txantrealako, ta yoan bear giñun... seietako...txantrea, ta etzen ez billabeseik ta emendik yoaten giñen oñes zeara...plaza de toroan ondoan... andilek asten zela billabesa ta, esaten tziun billabesak, esaten tziu/on noa...ra zozte orduotan, orduotan noa zazte, etziun artu artu nae/i izaten, pentsatzen zun...estab...emakumiok non daeltze emen ta esaten giñun eskolaa joan beagiñula... garbitzia ta ... bueno bueno sartu, sartu, ta yoaten giñen ta an...ats...zortzik arte, eskola sartzen tzen umi aik zortzita(n)

eta aittu giñen...goizeko...la(n) in biagiñun...ta ta be(i)s atsalda/en yoan bear giñun ta, oi...madre de dios...

-Jesus, a ze lana.

-Oix/se zen, lana? ez aon bezala, ikasti(a)uzte...zuk ikasten bauzte, bauzte, non sartzeko lekuu, biño guk zer giñakin ordun... diusez, ez giñakin ezta...an zeaitzen gu bete lanin, kanpuan, bete lanin, bete lanin, baten zeak garbitzen...oan...zeatu, bestian garbittu/o bestin an eskardato/u zeak, patatak eta dena oitati(k)

-Bai oi esan bianizun, Arratsen ta bordan bizi ziñeten ez?

-Bordan, bordan

-Ta an ze lan itten ziñozten, bordan ze lan itten zen, sorotan o alorretan o?

-Sorotan ta alorretan ta dena oitan.

-Txerrik eta...aziendik eta baziñoten?

-Txerrik eta...ardik ez, beyek giñuzen ta txerrik eta beyek ta gue amak sei ume bazittun eta...sei ume eta bat il tzuten gerra(n) biarrena, ta bestii yoan tzen soldadu, gaztena, oitabi urtetan yoan zen (zere?)...lenau libratu zuten, ta gio gerra akaatu zenin... esan tzietela denbua kanbietu zela eta joan bearko zula zeara, soldadu kunplitzia ta oantxe eaman zuten oitabi urteta(n) ta besti zaarrena bes, eondu zen, eondu zen gerran, iru urte beni(k) in zittun(n), gio gerra akaatu zen(in) Afrika eaman zuten ta Afriketik etorri zen geo yoan zen lanea... yoaten zen mendire, ta an izandu zun akzidenti....(eztai ze izan zun)...il tzen, iru anaiek illek.

-Ta zenbat geldittu ziñeten ordun? ordun iru aizpe geldittu ziñeten?

-Iru aizpek, iru anaiek il tzen, ta iru aizpek b/pizi ga.

-Zu ta, gio sorotan ta zuk lanian aitzen ziñeten?

-Bai bai, antxe aitzen giñen, ta tia giñun guk aman aizpe, arek itten zittun gizonak bezalaxe lanak itten zittun, kanpon beyeke/in ta gurdikin ta alorretan ta dena, arren bearrak gue amak izandu zittun, gañeakuan ia ze inbiagiñun...geo nelik urtia in me nun aitte il zelaik ta zarrenak il zenin... bai ordun... zarra zen... oi...zarrenak zarrenak amar urte, in men zittun atte il zelaik... ta sei ume bagiñen, sei anai... ta tia gaxo/ua, majiña lan in ziun ta otxentaiseis años il zen, ia... lauetau oitasei urtetan il zen.

-Ta ordurarte lanian aitzen zen?

-Lanin, lanin, lanin, beteli lanin... arrek e iruetan urtetan ta g(e)iotan, gizonak bezalaxe kanpua(n) igual ta esa ... esaten giño/un jainkuak arrei lao/untzen zioek eta itten zio... bete osasuna izandu zun... beno osasuna beti izan zun reumak eta atakatzen zioten, betiño beti biñipin lanin, eskerrak arrei gañeakoan gu(e) amak ze in biazun sei umekil/en....ia

-Zu Felisa ta eskolara ola juaten ziñeten, an Arratsen berian?

–*Bai, bai eskola ta joaten giñen... an eskolak oan ez te bezala astero... lau urtetan de, ...zazpi urtetan, ta zazpi urtetan ze in bear... urtes yoan giñen, amabi urte ta bete beyei kasuitzeko, kanpora ateatzeko, kanpoan e, beyei kasuitek...ta ka...zea giñuzen ba, berdurek, kanpuak ola ta geo alorrek ondua(n) ta maizek eta ja... jatea ez joatitak(k) (j) an eoten giñen kaso itten, ta ze ustiuзу zenbat denboan yoan giñela eskola? zazpi urtetan asi ta beste lau urte in bagiñuzen? eskola! eztau, ta hamalau urtetan ia ez ziñun yoan bearrik, ta lanin, lanin, an... bete lanin, ta kanpua, erre/ire zenbat...joaten giñen z(e)atz(i)a, eskardatzia... enaiz akordatzen.... eskardatzia maizek eta, askotan erreire juaten giñen, etxeoaken ta...*

–*Ta artayorran ta aitzen ziñeten?*

–*Bai, bai, yorran ailetzen giñen, bai, bai*

–*Ta artazuriketan ta?*

–*Denetan, denetan, denetan.*

TRANSKRIPZIOAREN IRUZKINA

1. FONETIKA

1.1. BOKALAK

Honako hizkera honen bokalak, euskerazko sistema bokalikoan ohi denez, nahiko egonkortasunez mantentzen dira.

• /i/ fonemaren aldaera fonetikoei buruz esan beharra dugu ageriko dela, gure transkripzioak agerian uzten duen bezala, [i] irekia. Hau, Basaburuko zenbait herritan gertatzen da, horien artean gure kasukoa den Arraratsen.

Hona hemen zenbait adibide:

-Herskarien ondoren:

handik	and[e]k
dabiltza	da[e]ltze
behiekin	beyek[e]n
beti	bet[e]
biño(<baina)	b[e]ño

-Dardarkarien ondoan:

herrira	err[e]re
---------	----------

-Sudurkarien ondoan.

ni	n[e]
----	------

-Hitz hasieran, kontsonante herskari belarearen ezkerrean. Hona hemen adibide hauek (traskribiturik dagoena baino aurrerago agertzen da):

ikusten > [e]kusten
 ikaarri(ikaragarri) > [e]kaarri

Dena den aldaera hau ez da oso garbi nabaritzen ahal eta horregatik transkribitu ditut zenbait hitz bi grafemak jarritz. Bestalde zenbait kasutan hau ez da bete:

hemendik, Afriketik, hoiat(i)(k), beni(k) (behinik behin).

Orreaga Ibarrak¹ beste ingurune bat ere aipatzen du, alegia, txistukarien ondoko /i/- z bukaturiko aditz partizipio askotan.

Horrela ba hemen i>e gertatzen da.

• /-e/ fonema hertsu egiten da [j] bokalardi bihurtzeraino a-ren aurrean, honoko adibide hauekin:

one(r)a	> onea	> on[j]a
lane(r)a	> lanea	> la[j]a
emakume auk	> emakum[j]auk	> emakum[j]ok
bestean	> best[j]an	
kunplitze(r)a	> kunplitz[j]a	
urtea	> urt[j]a	
bear ziñun	> b[j]aziñun	
bear zun	> b[j]azun	
joatea(ga)tik	> joat[j]atik	
eskardatze(r)a	> eskardatz[j]a	

Dena den, zenbait kasutan ez dut hertsidura hau antzeman eta /e/ fonema bere horretan gelditu dela iduritu zait: *zeak; in bear; ateatzeko; bearra*

Beraz e+V> j V gertatzen da.

Orreaga Ibarrak joera honekin batera parekatzen duen e(i/-txistukaria, ez du iduri betetzen denik *etxe* adibidean behinik behin: *etxi; etxeoaken*. (Hala ere traskribiturikoa baino aurrerago bada adibide bat, *itxin*)

/e/ fonemak bere tinbrea aldatu egiten du hurrengo silaban /u/ bat izan ezker:

e→i/-u

behar zenuen	> [bjazinun]
genuen	> [ginun]
genuela	> [ginula]
ginuzen	> [ginusen]

Ibarrak dioenez¹, kontsonante sudurkarien desagertzearen ondorioz, /e/ bokala /a /ren atzetik aurkitzen denean /ae/ eta /oe/ taldeak osatuz, ixtera jotzen du

¹ Orreaga IBARRA MURILLO *Ultzamako hizkera. Inguruko euskalkiekiko harremanak*. Nafarroako Gobernua 1995, 86. orrialdea.

eta [ai], [oi] diptongoak bihurtzeko joera erakusten du. Era berean, sudurkaria galtzen da silabaren bukaeran, posizio inplosiboan beste sudurkari bat dagoenean.

Gure kasuan ez da [ai] gertatzen, edo nik ez dut horrela sumatu, eta [ae] bere horretan gelditu dela iduritu zait. Horrelako adibideak aurkitu ditut (transkribiturik dagoena baino aurrerago):

izanen > [isaen]
emanen > [emaen]

-/a/ fonemari dagokionez, a mugatzailearen eransketaren ondorioz sorturiko aldaketa ezberdinak ikusten ahal ditugu:

Asimilazioa:

-i+ -a > -ii: *baserrii, guardii, bestii*

Asimilazioa eta bokal desagerketa:

-i+ -a > -i: *etxi*

-e+ -a > -i: *azidentin, lanin, zenin, akzidenti, bestin* (baina aurreraxeago «bestian»).

Pluraleko kasua sail honen barnean sartzen ahal dela uste dut:

-i + -ak > -ik: *txerrik, ardik, zortzik, begik.*

-a organikoaren asimilazioa: a(e/i, u-: mila) > mille

a mugatzailearen ixtea: a(e/i, u-

ordua > ordue

behiak > beyek

hilak > illek

ahizpak > aizpek

berdurak > berdurek

maizak > maizek

—ra adlaribo kasuko /a/ ren ixtea:

mendira > mendire

/ai/ diptongoa+ a mugatzailea: ixtea:

bei + ak > beiek

anai + ek > anaiek

/e/ batez hasitako hitz batzuetan lehen silabako kontsonante frikari albeolarea galdu eta e (* i > j) > j biladabidea betetzen dela aipatzen da Basaburua eta Imotzerako; baina hemen ez du iduri hau betetzen denik; horrela, hau dugu:

eraman > eaman

erostera > eost[j]a

• /o / fonemari buruz Ibarrek dio (93. orrialdea) askotan – a morfema mugatzailearen ondoan, /u/ izatera iristen dela. Era berean hitz erdian ere o+a taldean –oa hertsia ebakitzen dela. Transkribitu dudana arabera, badirudi /o/ fonema nahiko bere horretan ahoskatzen duela: *neskatoak, yoaten, etxeakoak, ondoan, gañeakoan*.

Batzuetan ordea /u/: *kanpuan, onduan*.

• -/u / fonemari dagokionez esan daiteke u> o bilakabidea ikusten ahal dugula, nahiz eta traskribitzerako garaian bi grafemak jarri: *garbitto, eskardato, giñon, laontzen, eztakizo*.

Batzuetan ordea [u] garbi bat aditu dut: *garbittu*.

Bestalde aipatu beharra da -a mugatzailearen eransketaren ondorioz sortzen den asimilazioa: -u + -a > -uu: *lekuu, pisuu* (transkribiturik dagoena baino aurrerago).

• Beheranzko diptongoei dagokienez, zera aipa dezakegu:

-eu > iu egiten du: *deusez > diusez*
(besteren batean ordea deusez gelditu da)

-ai: -berdin mantentzen da batzuetan: *enaiz*. Beste batzuetan monooptongaketa gertatzen da: ai > a: *enaz* (traskribiturikoa baino aurrerago), *zattut*.

ei: - batzuetan ei>e, monooptongaketa egiten du: *beinik > benik*

-ei > i monooptongaketa egiten du: (behinik behin) *beinik bein > biñipin*

Honetaz gain, diptongo bigarrenkari franko aurki ditzakegu: *oitamar; oiri; oikin; eztau; aik; aittu; beis* (<berriz). Hau hitz batzuetan monooptongaturik azaltzen da: *bes*.

• Goranzko diptongoei buruz esan dezakegu, arestian aipatu ditugun [ea] eta [oa] taldeak [ja] eta [wa] ebakitzearen ondorio direla.

• Hiatoak, bokalen sailean aipatu ditugu. Hala ere ager dezagun hemen hiato batzuren murrizketaren adibidea:

-i + -e > -i-: *guzietan > guzitan*

-u + -e > -u-: *nuen > nun*
zuela > zula

-u + -a > -u-: *buruan > burun*
orduan > ordun

-e + -e > -e-: *gazteena > gaztena*

• Sinkopa: Ez du ematen etekin handikoa denik. Bizpahiru adibide baditugu (Transkribiturikoa baino aurrerago): *txerkomik; pastu; barneko; ikasteuzte; bauzte*.

- *Aferesirik ez da gertatzen.* Kasu zehatzen batean, baina badirudi hizketa azkarraren ondorioa dela.

- Partizipioetako -i, sinkopatu egiten da: *etor zenak; etor zien; etor giñen* (aurrerago) eta era berean geroaldian ere hau ikusten dugu: *etorko giñen* (transkribiturikoa baino aurrerago).

1.2. KONTSONANTEAK

Kontsonante herskariei dagokionez, argi ikusten da bilakabide baten indarra, izan ere /b,d, g/ segmentuak galtzeko joera nabarmena baita; eta /r/ ere bai:

$g \rightarrow \emptyset / v-v$

hogeitamar > *oitamar*
 egondu > *eondu*
 egiten > *itten*
 zigun > *ziun*
 gehiagotan > *g(e)iotan*
 laguntzen > *laontzen*
 lehenago > *lenau*
 bigarrena > *biarrena*

$d \rightarrow \emptyset / v-v$

uste duzu > *ustiuzu*
 dago > *dao*
 ikasten duzute > *ikastiuzte*
 baduzute > *bauzte*
 bizi da eta > *bizi a ta*

$b \rightarrow \emptyset / v-v$

hilabete > *illaate*
 hilabete baten > *ilaateaten*
 irabazten > *iraazten*
 dabilta > *deltze*
 akabatu > *akaatu*
 ahizpa ba t > *aizpeat* (aurrerago)

- r → ø / v-v

orain > *oaen, oan*
 gero > *geo*
 allatu ezkeroz > *allatuiskios*
 aritzen > *aitzen*
 paratzen > *paatzen*
 billabesarik > *billabeseik*²
 nora > *noa*
 eskolara > *eskolaa*
 lanera > *lanea* (baina, mendira > *mendire*, ez da galtzen)
 gure > *gu(e)*
 zelarik > *zelaik*

Dardarkari bikoitzaren galera:

berriz > *be(i)s*
 arratsaldean > *atsaldan*

/-r/ > ø azkeneko posizioan:

-zer galdetzailean: *ze iraazten zuten; ze itten nun ; an ze aitzen; ze ustiuazu*

-behar aditzaren ondoan:

zer egin behar duzu	> <i>ze in beazu</i>
jubilatu behar zenuen	> <i>jubilatu biazinun</i>
zer egin behar zuen	> <i>ze in biazun</i>

• — rtz/ -st kontsonantez osatutako taldeei buruz, esan behar da Arraratsen (eta orohar Basaburuan) – st multzoa dugula: *oitabost, bestian, bestin...*

Honekin loturik, Arraratsen *esan* esaten da eta ez, *erran*.

• Hitz hasierako *j- ren ebakera [j] ebakera eta aldi berean eta zenbait kasutan [x] ebakera ere antzematen dugu. Hona hemen adibideak:

[j] ebakera	-[x] ebakera
<i>yoan</i> bear giñun	eskolaa <i>joan</i> bea giñula
<i>emendik yoaten</i> giñen	eta <i>joan</i> bearko zula
ta bes atsaldan <i>yoan</i> bear giñun	<i>jainkuak</i>
ta bestii <i>yoan</i> tzen soldadu	<i>joaten</i> giñen
geo <i>yoan</i> zen lanea	<i>jaietan</i> (aurrerago)
urtes <i>yoan</i> giñen	
<i>yorran</i> aitzen giñen	
<i>yendiek</i> (aurrerago)	
<i>yostatzea</i> («»)	

² Iruñean horrela esaten zaie hirian barna ibiltzen diren autobusei.

Beste fenomeno bat ere hemen aipa dezakegu, nahiz eta behar bada aditz morfologian ere sartzen ahal den: aditz laguntzailearen bigarren pertsona singularrak elementu protetiko bat hartzen du: y–

Gure kasuan adibide bakarra dugu baina hau berresten ahal duela iduritzen zait: (traskribiturikoa baino aurrerago)

yoan tzen ta esaten giñon, ez txaila atia, gio etortzen yaizenin bes igual kastigatuko yau.

• f- > p– bilakabidea betetzen dela iduri du, baina ez dugu adibide bat besterik:

festa > pesta (aurrerago)

Dena den *famille, farmazi, fuerte* esaten du aurrerago.

• Bustidura: franko emankorra dela iduri du. Bustidura gertatzen da honoko ingurune hauetan:

— Bustidura automatikoa: bai hitz barnean, bai morfema mugetan ere.

— t/ i-v:

zittun, geldittu, itten, ttu, ttut, garbittu, zittuten, aittu, bazittun, kasuittuko.

(Pluragilearen bustidurari dagokionez, aditzeko aniztasuna adierazteko – tt dugu adizkiaren hasieran. Ez dago bustidurarik gabeko formarik)

— t/ j- v: *atte.*

Esan behar da bustidura automatikoa – i ren ondoren hortzetako heskari ahoskabea palatalizatzen duena, ez dela ingurune guztietan gertatzen. Ondorengo morfema hauekin ez da bustidurarik sortzen:

— tan inesiboaren morfema: *zortzitan, oitan.*

— tik,-tiken ilatiboarenak: *oitatik, Afriketik.*

(Ibarrak atal honen barnean – ta /-te partizipioarena eta – te aditzen 3. pertsonaren morfema eta azkenik – ten aditz burutugabeen morfema aipatzen ditu)

-l / i-v: *illaate, mille, illek, ollaskoak (aurrerago), isil-isille (aurrerago).*

-n/ i- v: *biaziñun, giñen, giñun, giñula, giñakin, giñuzen, majiña, ziñun.*

-n/ j- v: *biño, biñipin, gañeakoan.*

2. MORFOLOGIA

2.1. IZEN MORFOLOGIA

• Instrumentaleko –s aldaera:

Gure hiztunak instrumentalean –s egiten du ia beti, hala ere instrumentalerako s/z ren nolabaiteko lehia dagoela iduri du:

- s	- z
oitabi <i>urtes</i>	beatzi <i>urtez</i>
yoaten giñen <i>oñes</i>	zazpi o zortzi <i>illatez</i>
<i>urtes</i> yoan giñen	(aurrerago)
<i>kantus</i> ez (aurrerago)	eztait zenbat <i>kilometro</i>
<i>oñes</i> etor biaziañun («)	(aurrerago)
zenbat <i>aldis</i> yoaten giñen («)	
<i>mendis</i> («)	

Instrumentala –s z egitearen eragina izan daiteke honako hau:

berriz > *bes*
allatu ezkeroz > *allatuiskios*

Hirugarren graduko erakusleak /r/z egiten ditu gehienetan: arren bearrak; *arrek; arrei.*

Baina, *arek itten zittun*

Hona hemen gure hiztunak erabilitako beste erakusle batzuk(batzuk traskribiturik dagoena baino arrerago daude):

-Singularrean:	Absolutua: <i>au, oi, ore/ue/ ua</i> Ergatiboa: <i>orrek</i>
-Pluralean:	Absolutua: <i>ok, oik, aik</i> Ergatiboa: <i>ok, oik, aik</i> Genitiboa: <i>aien</i> Soziatiboa: <i>oikin, aekin/aikin/ aiekin</i> Inesiboa: <i>otan, oitan</i> Ablatiboa: <i>oitatik/ oietatik</i>

Izenordain pertsonalei buruz esan behar da batez ere i> e eta u>o aldaketa fonetikoak direla eta «ne»; «nek» eta horrelakoak egiten dituela. Bigarren pertsona plurala «zuk» da eta ez «zuek»: *zuk ikasten bauzte.*

Hona hemen lbarrak agertzen duen koadroa: Honako hauek dira Basaburuan erabiltzen direnak. Aldaketa fonetikoak direla eta, nahiko ezberdinak suertatzen dira forma hauek, eta horregatik, beste koadro batean sartu ditu:

1.	ne	hi	gu	zo	zuk
2.	nek	hik	guk	zok	zuk
3.	nei	hire	guei	zoi	zure
4.	nee	hirii	goe, guu	zoo	zuun
5.	nerri/nei	hirii	gurii	zurii	zuuna
6.	neentzat	hiitzat	guretzat	zoontzat	zuuntzat
7.	neeken	hiiken	guken	zooken	zuken

14.	netaz	hitas	gutas	zootas	zuutas
15.	neegan	hiigan	gugan	zoogan	zuugan
16.	neegana	hiigana	gugana	zoogana	zuugana
17.	neegañeaño	hiigañeaño	guugañeaño	zoogañea-ño	zuugañaiño
18.	neegandik	hiigandik	gugandik	zoogandek	zuungan-dek
19.	neegatik	hiigatek	gugatek	zoogatek	zungatek

- -Zenbatzaileei dagokienez, hona hemen gure transkripzioan ateratakoak:

Zenbatzaile zehaztuak ordinalak

3-iru biarrena

6-sei

7-zazpi

8-zortzi

9-beatzi

10-amar

14-hamalau

18-emezortzi

22-oitabi

25-oitabost

30-oitamar

60-iruetan hoge

65-iruetan oitabost

86-lauetan oitasei

Azpitarratzekoa iruditzen zait **-etan hoge**i egitura hauekin eraikitako zenbatzaile hauek nabarmentzea, izan ere honatx zer esaten duen Orreaga Ibarak (331. orr.):

«(...) hogeirekin osatutako zenbatzaile batzuk (60,80) **-etan hoge**i egituraz eraikiak dira: laueta**n** hoge*i*, iruetan hoge*i*, Ultzaman, Atez eta Anueko herrietan. Imotzen eta Basaburuan, ordea, txandaketa nabarmentzen hasten da (ik. Echaide 1989:285,286 galderak) eta berauetan argi ikusten da iruroei eta larogei formak Basaburukoak direla».

- Ergatibo singularra eta pluralaren arteko sinkretismoa gertatzen da hemen. Nahiz eta adibide askorik ez izan, hona hemen traskribiturikoa baino aurrerago dioena:

Mezaalekoak (Mendizabalea) *ola etxe aundi...oik zuten diru geixau, tienda re bazuten, biño beste aiñekoak* keba.

Ablatibo pluralean badirudi **-etarik** dagoela eta ez **-etarik**: *oitatik*.

2.2. ADITZ MORFOLOGIA

-Trinkoek iraganaldian badirudi *-a* - erroa dutela: *zer giñakin; ez giñakin; asko zakin; etzakin arrek...*

-Partizipioetan *-rik* eta *-a* darabilzki: *iru anaiek illek; itxin, desespeatuik*

-Aditzondoa badirudi absolutu singularrean darabilela: *gelditu zen isil-isille* (transkribiturikoa baino aurrerago) *antxe yoaten tzen bakar-bakarra* («»)

Geroago ordea mugagabeen erabiltzen du beste bat: *gabeako etortzen tzen mantso-mantso*(aurrerago)

-Partizipio analogikoa egiten ditu: *eondu nizin; eondu zen; izandu zittun*. (baina beste behin *beti izan zun* esaten du)

-Aditzean denborazko marka - nean/ -larik erabiltzen ditu: *atte il zelaik ta zarrenak il zenin... joaten giñelaik ta atsaldin bezpeta joaten giñenin*.

-Geroaldia aditzetan *-en* egiten du, kontsonantez bukaturikoak: *aman izaen nittun; izaen nun; ematen niken*.

-Eta bukatzeko, ezaugarri orokor batzuk aipatuko ditut:

Iragankorretako hirugarren pertsona pluralean - te egiten dute: *dute, zute, zakite*.

Iragankorretako bigarren pertsona plurala - te: *duzte, dakizte, ziñuten*.

(hurrengo orriek Arrarasko aditz laguntzaileak zeintzuk diren dakarte)

3. ONDORIOAK

Nafarrera garaiko bereizgarriak baditu:

Sinkoparen aztarnak ageri dira.

Instrumentalean *-s* egiten du.

Kontsonantez bukaturiko aditzetan geroaldia *-en* egiten du.

Gaztelaniazko *-on* bere horretan gorde da. (Iruzkinean ez dugu esan baina aurrerago *fronton bat* eta *kordiona* esaten du)

Aditzetako bigarren pertsona singularra *y-* da.

Mendebala, Gipuzkoa eta Nafarroa garaiko sartaldea hartzen duten isoglosak:

-st- kontsonante multzoa dago.

Ablatibo pluralean *-etatik* dago.

Trinkoek iraganaldian *-a-* erroa dute.

Partizipioetan *-rik* eta *-a*

Aditzondoa mugagabeen eta absoluto singularrean egiten du.

Nafarroa garaian sortalderago iristen diren isoglosak

Ergatibo singular eta pluralaren arteko sinkretismoa.

Erdialdeko hizkerak egindako berrikuntzak:

Iragankorretako hirugarren pertsona plurala *-te* da.

Iragankorretako bigarren pertsona plurala *-te* da.

Asimilazio- bustidura franko indartsua da.

Partizipio analogikoak.

f->p- bilakaera

Edun aditzean *-u-* da erroa nahiz *u > o* gertatu.

Hirugarren graduko erakusleetako *arre*, *arri*, *arrekin* egiten du.

Nafarroa garaiko sartaldean maiz betetzen den *u > o* bilakaera betetzen da.

Eremu murrizagokoa den *i > e* bilakaera betetzen da.

Partizipioetako *-i* bokalaren sinkopa eta geroaldietan ere bai.

BIBLIOGRAFIA:

- IBARRA MURILLO, Orreaga (1995): *Ultzamako hizkera. Inguruko euskalkiekiko harremanak*. Nafarroako Gobernua Iruñea.
- YRIZAR DE, Pedro (1992): *Morfología del verbo auxiliar alto navarro septentrional (estudio dialectológico)*, tomo 1, Nafarroako Gobernua, Euskaltzaindia, Iruñea.
- YRIZAR, Pedro (1981): «Los dialectos y variedades del vascuence», *Contribución a la dialectología de la lengua vasca (I)*, Donostia, Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa.
- URQUIZU, Patricio (1996): *Gramática de la Lengua Vasca, Cuadernos de la UNED*, Universidad Nacional de Educación a Distancia, Madrid.